

ANTSOAIN

Deialdia, Antsoaingo Udalaren zerbitzuko kirol instalazioen arduradun izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa murriztu bidez betetzeko. Izendapena

2009ko 132. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 26an, kirol instalazioen arduradun izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa murriztu bidez betetzeko deialdia. Proben epaimahaiak egin proposamenari jarraikiz, eta Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoa bete beharrez, Antsoaingo Udaleko alkate udalburuak, 2010eko otsailaren 23an emandako ebazpenaren bitartez, José Ramón Fernández Iriarte jauna kirol instalazioen arduradun izendatzea erabaki zuen, berak lortu baitu puntuaziorik handiena gainditu duten izangaien artean.

Antsoainen, 2010eko otsailaren 24an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

Iragarkiaren kodea: L1003532